

Hartz, Orein eta Katagorri Azeri-ren zain daude.
Azkenik iritsi denean, triste dagoela pentsatzen dute denek.
Zergatik? Arropa urdinak daramatzalako soinean.

Baina, kolore batek emozio bat islatzen ote du?
Baliteke koloreak askeak izatea.
Zuri zer iruditzen zaizu?



nubeocho

ISBN: 978-84-19253-40-8 www.nubeocho.com



9 788419 253408

GORRI EZ DAGO HASERRE, URDIN EZ DAGO TRISTE



Alicia Acosta

Luis Amavisca

Anuska Allepuz

nubeocho

GORRI
EZ DAGO
HASERRE

URDIN
EZ DAGO
TRISTE

Alicia Acosta

Luis Amavisca

Anuska Allepuz

Zuri, sentimenduek kolorerik ez dutela erakutsi zenidanari.

Alicia Acosta

Nire seme Juan-i. Bizitza bere kolore guztiekin gozaten duten denei.

Luis Amavisca

*Nire senarrari, daltonikoa denez mundua kolore ezberdinez ikusten duenari.
Mundua zure begien bidez ikusi nahiko nuke; dena begiratzen den prismaren
araberakoa dela ikusteko, dena dela erlatiboa.*

Anuska Allepuz



Gorri ez dago haserre, urdin ez dago triste
Somos8 bilduma

© testuarena: Luis Amavisca & Alicia Acosta, 2023
© irudiena: Anuska Allepuz, 2023
© argitalpenarena: NubeOcho, 2023
© itzulpenarena: Maialen Mujika, 2023
www.nubeocho.com · info@nubeocho.com

Jatorrizko izenburua: *El rojo no está enfadado, el azul no está triste*


Lehen argitaraldia: Maiatza, 2023
ISBN: 978-84-19253-40-8
Legezko Gordailua: M-10054-2023


Espanian inprimatua.

Eskubide guztiak erreserbatuta. Debeakuta argitalpen honen erreprodukzioa.



Alicia Acosta & Luis Amavisca
Anuska Allepuzek ilustratua





Hartz, Orein eta Katagorri arratsalde ederra
igarotzen ari ziren basoan.

—Non ote da Azeri? —galdetu zuen Oreinek.

—Laster azalduko da, ziur —erantzun zuen Katagorrik.

—Azeri, ondo zaude? Zer gertatu zaizu? —galdegin zuen Hartzek.

—Ai, gizajoa... —xuxurlatu zuen Katagorrik.

—Ez kezkatu, ziur gaiaz hitz eginda hobeto sentituko zarela... —gehitu zuen Oreinek.



—Baina, zer gertatzen da? Zergatik diozue hori? —itaundu zuen Azerik, harriduraz.

—Urdinez jantzia zoazelako. Tristuraren kolorea daramazu soinean! —oihukatu zuen Katagorrik.
—Nola? Ni, triste? Baina, ni poz-pezik nago eta! —azaldu zuen Azerik.
—Orduan... —Hartz pentsakor gelditu zen.



—Orain bai, orain alaitasunaren kolorea
daramazu soinean! —baieztatu zuen Oreinek.
—Egia da! —irribarre egin zuek Katagorrik.

—Azeri, kolorez nahastu zara —azaldu
zuen Hartzek.



—Baina, zertaz ari zarete? Haserretzen hasia naiz... —esan zuen Azerik ahopeka.
—Haserre zaude? —galdetu zuen Oreinek—. Orduan hobeto datorkizu beste hau! Ez al dakizu gorria dela haserrearen kolorea?
—Baita amorrarena ere! —baieztatu zuen Hartzek.

—Bai, bai! Begira iezaiozue!
Haserre bizian dago! —oihukatu zuen Katagorrik.



—Nahikoa da! Urduritzen hasia naiz,
hobe dut lasaitzen saiatu...

—Momentu bat! —deiar dar egin zuen Katagorrik.

